


Euskararen Nazioarteko Eguna

Azpeitia



eSAN eta eGIN

AZPEITIA Azpeitiko Udalak eta bere Euskara Patronatuak urte guztian zehar jarduten dute euskararen normalizazioan eragiten; hainbat proiektu dute eta Euskararen Nazioarteko Egunak aukera ona eskaintzen du patxadaz aztertzeko



Azpeitiko alkate Julian Eizmendi eta Iñaki Agirreazkuenaga katedraduna, Espainiako Auzitegi Gorenak euskararen ordenantza baliogabetzeko erabakia hartu ondoren egin zuten agerraldian; «ordenantzak ez du gaztelania diskriminatzeko» adierazi zuen Eizmendik, Auzitegi Gorenaren arrazoi nagusia ukatuz. N. URANGA

Euskararen ordenantza berria onartuko du Azpeitiko Udalak

Udal araudia» Dokumentua Euskararen Eguneko udalbatzarrean onartuko dute udal talde guztien babes eta onarpenarekin

Euskararen ordenantza berria izango du Azpeitiak. Udalean eta herrian euskararen normalizazioa eraginkorki bermatzeko helburua duen dokumentua berriro egin behar izan dute, aurrekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak indargabetu eta gero.

Ordenantza berria Euskararen Nazioarteko Egunean onartuko dute, gaur, abenduak 3, hain zuzen ere. Azpeitiko Udalaren organu gorenak hilaren lehen ostegunean egin ohi ditu bilkurak eta oraingoa, halaber, hala egokitu da eguna. Dena dela, egunaren sinbolismoa ere probestu nahi izan dute udal agintariek dokumentuari onarpena emateko. Euskararen araudi berria Azpeitik Udalbatzak aho batez onartzea espero da.

Egindako aldaketak

Administrazio Zuzenbidean katedraduna den Iñaki Agirreazkuenagak idatzi ditu bi testuak eta aurreko ordenantzarekin gertatutakoa berriro ez pasatzeko, neurriak hartu dira dokumentu berria egiteko. Ordenantza zaharra atzera botatzeko epaileek emandako arrazoi nagusiak gaztelaniaren diskriminazioa eta Udalak eskumenik ez izatea izan ziren. «Hori ez zen horrela, oinarri juri-

dikoarekin eginda zegoen ordenantza hura, baina ez zen testuan zehar era esplizituan agertzen. Horregatik, oraingoa lehengoaren berdina da, kalkatua, baina oinarri juridikoak gehitu zaizkio, besterik ez», azaldu du Saezek.

Era berean, Jaurilaritzak onartu berri duen Kontsumitzaileen legea kontuan hartu da ordenantza berria moldatzerakoan. Legeak eta neurriak betetzen ez dituztenei isunak eta zigorrak jartzeko aukera ere gehitu da ordenantza amaierako Xedapen Gehigarrietan.



«Azpeitiko euskaldunei harremanak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaie»

JULIAN EIZMENDI
EAJ

Azkenik, hitzaurre guztia ere aldatu egin dute: «Helegiteak nondik etorri ziren ikusita, aurre hartzen saiatu gara. Batetik, gaztelania baztertu egiten zela zioten, baina horrela ez dela gertatzen arrazoitzen da. Bestetik, Udalak honelako legedirik egiteko eskumenik ez duela esaten zen, baina hori horrela ez dela fundamentatzen da», esan du Euskara Patronatuaren zuzendariak.

Neurri hauek hartuta, ordenantza berriarekin arazorik ez dela izango uste dute arduradunek. «Euskal Herrian dagoen hizkuntzen araudien inguruko aditurik handiena da Iñaki Agirreazkuenaga eta bera ziur dago dena ondo aterako dela. Aurreko ordenantza aztertu eta atzera bota zuten epaile



«Nahiz eta baliogabetu, hasierako helburua eta filosofia lantzen jarraitu behar du Udalak»

IÑAKI ERRAZKIN
Ezker abertzalea

eta legelariak, dokumentuaren atzean zeuden legeiturrien jakitun ez zirela pentsatzen du Agirreazkuenagak», gaineratu du Saezek.

Hobetzeko tresna

Urte hasieran onartuko den ordenantza berriak Azpeitiko herriari aurretik ez zituen baliabideak eskaintzen dizkio euskararen inguruan sortzen diren arazo eta bestelako egoeren aurrean erabakiak hartzeko. «Euskararen ordenantza honek ekarriko duena zera da, tresna bat izango duela herriak arlo horretan erabakiak hartzeko. Lehendik dagoena ordenatzen da eta hobetzeko funtzionatzen du. Bukatzeko, euskararen erabilera gaztelaniarekin parekatzea ahalbidetzen du», amaitu du Saezek.



«Aurrekoa ez zegoen zertan baliogabetu. Lehengo ildo beretik segitu behar da»

MANUEL UNANUE
EA

» ARDATZ NAGUSIAK

Azpeitiko Udalak Euskararen Eguneko udalbatzarrean onartuko duen Euskararen Ordenantza berriak ardatz nagusi hauek ditu.

Xedapen orokorrak

■ **Ofizialtasuna.** Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak, baina euskara da Azpeitiko berezko hizkuntza. Ez da inor diskriminatuko hizkuntza dela eta.

■ **Eskubideak.** Herritarrekiko harreman, argitalpen eta kultur ekin tzak euskaraz izatea aitortzen da. Irakaskuntza publikoan euskaraz ikasteko bermea ematen da eta osasun-zentroetan euskarazko harrera izatea bermatzea saiatuko da Udala. Gauza bera gertatzen da justizia-eremuan eta polizia-harremanetan.

Administrazioko pertsonala

■ **Eskakizunak.** Udal administrazioan lan egin behar duten pertsonak euskaraz lan egin eta zerbitzua eman behar dute.

■ **Plangintza.** Hizkuntza plangintza eguneratzeko eta egokitze, udal langileek euskararen ezagutza-maila egiaztatu beharko dute.

Euskara administrazioan

■ **Lan-hizkuntza.** Udal-organismoetako ohiko lan-hizkuntza euskara izango da. Hala nola, akta, liburu, errolda, txosten, inprimaki eta erroteruak euskaraz egingo dira.

■ **Harremanak.** Administrazioen arteko harremanak eta kanpo harremanak euskara hutsez egin ahal izango dira, balio eta ondorio juridiko osoekin.

Toki-erakundeak

■ **Herritarrei begira.** Diruz lagundutako entitate pribatuak, edo edozein euskal Administrazio publiko-ekin lankidetzat hartzen diren bat izenpetu dutenek erabiltzaile eta kontsumitzaileen hizkuntza-eskubidea bermatuko dituzte.

■ **Enpresa eta saltokiak.** Udalak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei euskaraz harrera egiteko eta erantzuteko zigor sortu du eta atxikitutako establezimendu eta enpresak betetzera behartzen dira.

■ **Hizkuntza-paisaia.** Herritarrei zabalduko establezimenduetan euskaraz errotulatu behar dira.



«Udal talde guztien artean egindako lan txukuna eta aitzindaria da ordenantza»

JUAN CARLOS ARELLANO
Aralar

Udalerrian euskara sustatu eta normalizatzeko helburu nagusiarekin onartu zuen Azpeitiko Udalak udal ordenantza 2005eko abenduan. Garai hartan EAJ, EA, PSE-EE eta PP alderdietako zinegotzi guztien aldeko botoak jaso zituen dokumentuak (ezker abertzaleko Habea plataforma legez kanporatua zegoen), baina hiru hilabeteko ibilbidea egin ondoren, Espainiako Estatuaren abokatuak helegitea sartu zuen «gaztelania hizkuntza bezala baztertzen» zuela argudiatuz.

Azpeitiko Udalak helegitea bertan behera uzteko erantzuna eman zuen arren, 2007ko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Estatuaren abokatuaren errekurtoa onartu eta ordenantza baliogabetu zuen.

Gaztelania baztertzen zuela salatzeaz gain, epaiak Azpeitiko euskal hiztunen kopurua eta euskara askatasunez erabiltzea ere zalan-tzen jartzen zituen: «Ez da egiaztatuta agertzen errealitatean ia biztanleria guztiak, askatasunez, euskara erabiltzen duenik», zioen. Era berean, helegitean eta auzitegiko epaian Udalak hizkuntza normalizazio gaietan arauak ezartzeko eskumenik ez duela esaten zen.

«Erokeria juridikoa»

Azpeitiko Udalak berehala erantzun zion epaiari, «erokeria juridikoa» egotziz Estatuaren abokatuaren helegiteari: «Estatuaren abokatuak ezin du inongo froga materialik aurkeztu Azpeitian herritarrei gaztelania hizkuntza ofizial gisa erabiltzea galarazten zaie-la edo galarazi izan zaiela esateko.



Gipuzkoako Batzar Nagusiek euskararen ordenantzari babesa eman zioten; bilkuran izan ziren irudian agertzen diren Euskara Patronatuaren zuzendari Patxi Saez, Euskara batzordeburu Ana Mendizabal eta Julian Eizmendi alkatea. HITZA

Udalak euskara normalizatzeko ordenantza onartu zuen 2005ean, baina urtebete beranduago Espainiako Estatuaren abokatuak helegitea sartu zion dokumentuari. EAEko Auzitegi Nagusiak 2007an baliogabetu egin zuen.

Legearen hormen artean

Aldiz, Azpeitiko biztanleriaren %96ak arazoak ditu euskara hizkuntza ofizial gisa eta erabateko normaltasunarekin erabiltzeko, Azpeitian Estatuaren Administrazioaren menpe edo harekin lotuta dagoen edozein erakunderekin (erregistroa, notariotza, epaitegiak...).

Gainera, bere defentsarako Ka-

talunian izandako kasuetan oinarritu zen Udalak; bertan, ia udalerriguztiek hizkuntza normalizaziorako ordenantzak dituzte eta epaitegietara iritsi direnean, Udalaren alde egin du normalki Kataluniako Auzitegi Nagusiak, Sabadell hirian adibidez.

EAEko Auzitegi Nagusiak emandako epaiari helegitea aur-

keztu zion Azpeitiko Udalak Espainiako Auzitegi Gorenean, baina honek, atzera bota eta EAEko Auzitegi Nagusiari eman zion arrazoia 2009ko ekainean. Emandako epaiaren arabera, «Azpeitiko euskararen udal ordenantzaren azken helburua euskara hizkuntza ofizial bakar bihurtzea» zen.

Honen aurrean, udal ordezkariak

riak prentsaren aurrean agertu ziren Donostian euskararen ordenantza indargabetuz emandako epaia beren ustez «interpretazio oker» batean oinarritu zela eta dokumentuak gaztelania baztertzen zuela esatea «irreal» zela adierazteko.

Batzar Nagusien babesa

Urriaren 7an, Gipuzkoako Batzar Nagusien babesa jaso zuen Udalak euskararen erabilera arautzeko ordenantzaren auzian. Talde Mistoko Rebeka Ubera (Aralar) batzarkideak aurkeztu zuen proposamena. EAJ eta Hamaikabatek pare bat puntutan aldagetak egiteko eskatu zuten eta azkenean, adostutako proposamena bozkatu zuten Batzar Nagusietan.

Adostutako ebazpenak lau puntu zituen. Lehen, ordenantza hori EAEko bi hizkuntza ofizialak udal mailan arautzeko eredugarria dela, euskararen normalizazioaren alde tinko eta eraginkortasunez egiteaz aparte, herritarrek bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan aritzeko duten eskubidea bermatzen duela zioen.

Bigarrenak, udalek hizkuntza-politikako arauak eta ordenantzak ezartzeko beharra eta eskubidea duela adierazten zuen. Hirugarrenean, Azpeitiko Udalari elkartasuna adierazi zioten, babesa eta laguntza eskainiz. Azkenik, EAEko Epategi Nagusiak zein Auzitegi Gorenak hartutako erabakiak arbuiatu zituzten. EAJk, Talde Mistoka eta Hamaikabatek aldeko botoa eman zuten puntu guztietan. PSE-EEk eta PPlk, aldiz, ebazpenaren bigarren puntuari bakarrik eman zioten baiezkotza eta ezezko beste hirurei.

«Nire ustez, Auzitegiak ez du ondo ulertu Azpeitiko ordenantzaren azken helburua»

ANA MENDIZABAL › Udaleko Euskara Batzordeburu

Udalaren ikuspegia ›

EAEko Auzitegi Nagusiak emandako epaiarekin Udalean «harrituta» gelditu zirela onartu du Mendizabal zinegotziak

Azpeitiko Udala ez zen ados agertu EAEko Auzitegi Nagusiak eta Espainiako Auzitegi Gorenak emandako epaiekin. Udal ordezkarien ustetan, «erokeria juridikoa» izan zen. Zurrumbilo guztia amaitu eta hilabete batzuk igaro direnean, Udaleko Euskara Sailaren batzordeburu Ana Mendizabalek auziaren inguruko ikuspegia agertu du orain.

Aurreko ordenantzaren inguruan auzitegiek esandakoa nola baloratzen duzu?

Azpeitian euskaraz egiten dugun konpurua oso handia da, %90 ingurukoa, eta herritar horien es-



NEREA URANGA

kubideak bermatzea zen gure asmoa. Harritu egin ninduen EAEko Auzitegi Nagusiak esatea Azpeitian ez dela euskara «askatasunez» erabiltzen, norbaitek herritarrek euskaraz hitz egitera behartuko balitu bezala. Nire ustez auzitegiak

ez du ondo ulertu ordenantzaren azken helburua, inoiz ez baita inoren kontra joateko asmorik izan; guk gizarteko arlo eta esparru guztietan herritarrek euskaraz bizi ahal izateko aukera bermatu nahi genuen.

Lehenengo arazoak ekiditeko neurriak hartu dituzue. Oraingoak aurrera egingo ote duen, zalan-tzarik ba al duzue Udalean?

Zalantzak beti dituzu, batez ere dakizunean arazoak sortzen direnean, edo, hobeto esan, arazoak

sortzen dituztenean, konpontzeko ardura duena hizkuntzetako baten defendatzaile «sutsuagoa» dela ikusten duzunean.

Zer nabarmenduko zenuke Udalak onartutako duen ordenantza berririk?

Tresna bat da azpeitiarrek arlo pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskaraz egiteko duten eskubideak benetakoak bihur daitezen. Ordenantzaren bidez lortu nahi dugu Azpeitian euskaraz bizi nahi duen edonork edonon eta edozertarako erabiltzeko aukera erreala izatea.

Herritarrei nola eragingo die ordenantza berriak?

Ordenantza herritarrentzat egin dugu, azpeitiarrentzat. Udaletik euskaraz egiteko aukerak bermatu nahi izan ditugu herritarrentzat eta zein pauso eta zein norabide-tan eman behar diren zehazten da. **Udal talde politiko guztien babesa jasoko du dokumentu berriak. Zer garrantzia du horrek?**

Euskara ikuspegi politikoengainetik dagoela esan nahi du horrek. Gainera, hala egon behar du beti. Euskara herri osoarena da eta guztiok batzen gaitu. Horrela izatea oso garrantzitsua dela pentsatzen dut.

Euskara sendotzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Aldundiak

Hitzarmena » Bi erakundeek adostu duten hitzarmen aitzindariak bost urteko iraupena izango du eta beste bost urtez luzatzeko aukera izango dute bi aldeek

Euskararen erabilera zabaldu eta indartzeko helburu nagusiarekin hitzarmena sinatu dute Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara departamentuak. Honela, bi erakundeen arteko harremanetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskararen erabilera eta euskarazko ekoizpena bultzatuko dutela agertu zuten Azpeitiko alkate Julian Eizmendik eta Gipuzkoako Euskara eta Kultura diputatu Maria Jesus Aranburuk.

Azaroaren 4an sinatu zuten akordioa Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen erabilaren normalizazioan orain arte izan duten lankidetzari indartzera eta sakontzera dator. Azpeitiko herriaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartu dela agertu zuten Aranburu diputatuak hitzarmen aitzindaria sinatzerako orduan.

«Badaude arrazoi objektiboak hitzarmen hau Azpeitiarekin egiteko. Bat, udalerriaren egoera soziolinguistikoa, Azpeitia euskararen arnagune delako. Eta administrazio mailan egin duen ahalegina garrantzitsua delako; azpimarratzekoak dira abian dituen planak eta webgunea, www.erabili.com», adierazi zuen Aranburuk. Era berean, Azpeitian udal administrazioak garatu duen Euskara Planaren «egokitasuna eta sakontasuna», nabarmendu zuten Aldundiko arduradunek: «Azpeitiko Udala erreferente izatera eraman du».

Julian Eizmendi alkateak, berriaz, euskaraz gaztelaniaren aurre-



Maria Jesus Aranburu diputatua eta Julian Eizmendi Azpeitiko alkatea, akordioa sinatu ondoren. MAILO OIARZABAL

an duen ahuleziari aurre egin beharra dagoela azaldu zuen: «Azpeitiko herriak 14.500 biztanle eskas ditu denera eta biztanleriaren ia %90a euskalduna da. Euskara eta gaztelania koofizialak dira, baina ez daude mailaberean. Ahulena da euskara, eta sustatzeko beharra duena».

Idea hau oinarri hartuta, euskararen normalizazioa bultzatzeko herrian abian dauden ekimenen azken helburua aurreratu zuen Eizmendik: «Euskaraz bizi nahi dugunok, arlo guztietan, eskubide formalak izatetik eskubide materialak izatera pasatzea da helburua, gaztelaniaz bizi nahi dutenek

izan badituzten eskubide formalak euskaldunen kasuan ere gauzatuz».

Ikerketa aplikatua egingo dute

Azpeitiko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harreman hizkuntza bakarra euskaraz izango da beraz, bai langileen ar-

tekoa baita arduradun politikoen artekoa ere. Ildo beretik, Aldundiak Azpeitiko herritarrekin izan beharreko harreman zuzenak euskaraz hutsez bideratuko ditu.

Hitzarmenaren sinatzaileek bi erakundeen arteko jardura hobeto ezagutu, bakoitzaren indargune eta ahulguneak identifikatu eta neurri zehatzak ezartzeko balio izango duen ikerketa aplikatu bat egiteko asmoa agertu zuten. Horretarako, batzorde bat osatuko dute eta bertako kideek bi erakundeen arteko harremanetarako hizkuntza euskaraz dela ziurtatu beharko dute.

Euskara eta Kultura diputatu Aranbururen esanetan, batzorde honek gutxienez urtean hiru bilerara formal egingo ditu, ezarritako metodoari jarraipena egin eta, hala badagokio, zuzenketak bideratzeko. Bestalde, hitzarmenak bost urteko iraupena izango du, eta bi aldeek hala nahi izanez gero, beste bost urtez luzatzeko aukera izango dute.

Beste udalerrietara zabalduz

Azpeitiko Udalarekin sinatutako hitzarmenak ematen dituen emaitza eta ondorio guztiak kontuan hartu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizunean lurraldeko gainontzeko udalerrietan formula bera erabiltzea aurreikusten du.

«Izan ere, bai Udalak, bai Aldundiak, euskara sustatzeko egiten dituzten ahaleginetan sinergiak aprobetxatzea izango da hitzarmen honen beste onura bat», gaineratu zuen Julian Eizmendi alkateak.

» ARDATZ NAGUSIAK

Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatu duten hitzarmenak zazpi puntu ditu guztira.

Akordioaren edukia

■ **Harremana.** Elkarren arteko harremanetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskararen erabilera eta euskarazko produktioa bultzatuko dute eta beharrezko diren baliabideak jarriko dituzte elkarren artean idatziz eta ahoz zein harreman dituzten identifikatzeko eta, euskara sustatze aldera, neurri zehatzak proposatzeko.

■ **Ekimenak.** Euskararen gizarte

erabilera bultzatzeko ekimen bateragarriak aztertuko dituzte, elkarrekin edo modu sinkronizatuan garatzeko.

■ **Hedapena.** Sinatzaileek agiriari behar den hedapena emateko konpromisoa hartu dute, eta elkarrekin jakinaraziko diote Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari hitzarmen markoaren berri, gauzatzerakoan haren babesa eta laguntasuna izan dezan.

■ **Beste udalerriak.** Gipuzkoako Foru Aldundiak aukera izango du Azpeitian euskararen erabilera eragiteko abian dauden ekimenen

berri Gipuzkoako beste udalerriei emateko. Azpeitiko Udalak, horretarako, behar beste informazio eta erraztasun eskainiko dizkio Foru Aldundiari.

■ **Garapena.** Gipuzkoako Foru Aldundia hitzarmen honen edukia- ren eta bere garapenaren berri langileei eta Gipuzkoako herritarrei adierazteaz arduratuko da. Era berean, Azpeitiko Udala hitzarmen honen edukia- ren eta bere garapenaren berri udaleko langileei eta, herriko komunikabideen bidez, bertako herritarrei adierazteaz arduratuko da.

■ **Batzordea.** Akordioaren jarrai-

pen eta zaintzarako batzorde bat osatuko da, erakunde bakoitzetik gutxienez bi ordezkari izango dituen. Batzordea urtean hirutan elkartuko da eta bilera bakoitzaren ondoren, berri zehatza emango zaio euskara kontuetan ardura duen erakunde bakoitzeko arduradun politikoiari.

■ **Iraupena.** Hitzarmena bost urterako sinatu da eta epea, beste bost urterako luzatu ahal izango da aldeetako baten batek, edo biek, idatziz bertan behera uzteko borondatea azaltzen ez badute, gutxienez ere iraunaldia amaitu baino hilabete lehenago.



ELEGUNE
ELEGUNE



Azpeitiko enpresak indartuz

enpresen
hizkuntza-gestiorako
gune teknikoa

Lan Hitz



Herritarren %86k euskaraz hitz egiten du gaur egun

Kale erabilera » Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren arabera, herritarren gehiengoak euskaraz hitz egiten du kalean

Azpeitiko herritarren gehiengoak euskaraz hitz egiten du kalean. Ondorio horretara irits daiteke Soziolinguistika Klusterrak Azpeitiko kaleetan zehar egin duen ikerketaren emaitzak ikusi ondoren. Aldiz, gaztelania oso gutxi entzuten da.

Azpeitiko Udalak eskatutako ikerketa 2009. urtean zehar egin dute eta emaitzak ekainean jaso zituzten. Lehenbizikoz egiten den azterketaren helburu nagusia galdera zehatz batzuei erantzutea izan da: jendeak herriko kaleetan hara eta hona dabilenean, zenbat erabiltzen du euskara gaur egun? Herriko erdiguneko kale baten izkinan jarriko bagina, zenbat elkarriketa entzungo genituzke euskaraz? Eta gaztelaniaz?

Jakinekua eta ezaguna da Azpeitia herri euskalduna dela, baina Udalak bere udalerrian euskararen eta gainontzeko beste hizkuntzen erabilera zenbatekoa den zehatz-mehatz jakin nahi zuen, eta horregatik agindu zuen kale erabileraren ikerketa hau egitea.

Datuak eskuartearen izanda, emaitza onak lortu direla esan dai-

teke; izan ere, Azpeitian gaur egun kalean topatutako herritarren %86k euskaraz hitz egiten du eta ia %14k gaztelaniaz. Beste hizkuntzen presentzia, aldiz, ia nabariegina da Azpeitian, 0,4koa baita.

«Aipatutakoa emaitza orokorra da: kalean, ehunetik 86 euskaraz eta 14 gaztelaniaz. Baina ikerketatik emaitza gehiago ere atera dira. Esate baterako, datuetan ikusten da Azpeitiko haurrek Azpeitiko adinekoek baino gehiago egiten dutela euskaraz kalean (batez beste). Edota emakumeen erabilera eta gizonezkoena antzekoa dela», gaineratu du Pablo Suberbiolak, Soziolinguistika Klusterreko teknikariak.

Gipuzkoarekin alderatuz

Ikerketa honetan Azpeitiko herriak lortu dituen datu eta emaitza onak are eta hobek bihurtzen dira beste azterketa batzuetako emaitzekin alderatuz gero. Adibide garbia, 2006. urtean egindako ikerketa izan daiteke. Bertan, Gipuzkoako lurraldean erabiltzen diren hizkuntzen neurketa egin zuen enpresa berak.



Azpeitiko kaleetan nabarmena da euskararen erabilera gailentzen dela gaztelaniaren aurrean. HITZA

DATUAK ULERTZEKO, PILOTA GIROKO METAFORA

Kaleko hizkuntza erabileran, Azpeitian gaur egun %86 euskaraz eta %14 gaztelaniaz egiten da. Datuak hobeto ulertzeko, Soziolinguistika Klusterrak adibide bat ematen du: «Demagun esku-pilotan jokatzeko elastikoak egiten dituen enpresa batek promozio egun batzuk antolatu dituela Azpeitian eta kamisetak banatu dizkiola jendeari. Pertsona bakoitzari kamiseta bana eman dio; zein koloretakoa? Euskaraz hitz egiten dutenei, kamiseta urdina. Gaztelaniaz hitz egiten dutenei, berriz, kamiseta gorria. Orduak pasatu ondoren zein izan da azken emaitza? Azpeitiko kaleetan ibiltzen den jendearen artean, 100 pertsona hartuko bagenu, 86 kamiseta urdina jantzita ikusiko genituzke, eta 14 berriz, kamiseta gorria jantzita. Beraz, urdin asko ikusiko litzateke herriko kaleetan».

Gipuzkoako lurralde osorako dauden azken datuak dira 2006koak eta hauen arabera, gipuzkoarren %32,7ak hitz egiten


du euskaraz kalean. Gaztelaniaren erabilera, berriz, askoz ere hedatuago dago, %65,5ek hitz egiten du hizkuntza honetan. Emaitzarik

berdintsuena atzerriko hizkuntzetan ematen da; izan ere, Gipuzkoan %1,8ak euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza bat erabiltzen du.


Datu gehiago, laster

Azpeitiko udalerriari buruz kale-ratutako emaitza hauek, ordea, aukeraketa labur batekoak besterik ez direla agertzen dute Soziolinguistika Klusterreko arduradunek, «ikerketaren aurrerapena da». Udalak eskatutako eta Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketa honen datu zehatzak laster emango dituzte jakitera, bi aldeek eskainiko duten aurkezpen batean.

Azpeitian, kaleko hizkuntza erabileraren proportzioak 2009. urtean



Gipuzkoan, kaleko hizkuntza erabileraren proportzioak, 2006. urtean



EUSKALDUN BERRI TXIKIAK



Ikasberri ikastolako ikasle batzuk EtorkiZUn programan ari dira parte hartzen. KRISTINA FERNANDEZ



Karmelo Etxegaraiko haur etorkinek ere gozatzen dute EtorkiZUn programako ekimenetaz. KRISTINA FERNANDEZ



Hainbat haur ari da parte hartzen Iraurgi ikastetxean lantzen den EtorkiZUn egitasmoan. KRISTINA FERNANDEZ

EtorkiZUn » Herriko hiru ikastetxeetan ikasten duten haur etorkinei euskara ikastaroak eskaintzen dizkie Euskara Patronatuak

Etorkinek zailtasunak izaten dituzte Azpeitiko bizimoduan integratzeko. Leku berri batera iristiaz gain, hizkuntza arrotz eta berri bat aurkitzen dute parez pare. Bertako biztanleekin harremanak izateko muga handia izaten dute euskara, ez baitute hizkuntza ulertzen eta are gutxiago, hitz egiten.

Hau kontuan hartuta, Azpeitiko Euskara Patronatuak eta Udal Euskaltegiak etorkin helduei zuzendutako AISA ikastaroak jarri zituzten abian 2004an. Bi urte beranduago, berriz, 2006an, lau eta hamabi urte bitarteko haurrei bideratutako ikastaroak iritsi ziren. Euskara eta Gizartekintza sailek EtorkiZUn egitasmoa jarri zuten abian, *etorkin* eta *etorkizun* hitzen arteko joko baliatuz.

Herriko ikastetxe guztiek hartzen dute parte egitasmoan, Iraur-gik, Karmelo Etxegaraik eta Ikasberrik. Klase edo saioak 14:00etatik 15:00etara bitartean egiten dituzte ikastetxe bakoitzeko egoitzan. Karmelo Etxegaraik ikastolan, gaur egun, 54 ikasle daude zazpi talde desberdinetan banatuta, Iraurgi ikastetxean 34 ikasle dira zerbitzuaz baliatzen direnak lau taldetan banatuta; azkenik, Ikasberri ikastolan lau ikasleko talde bakarra dago. Guztira, 92 ikasle dira hamabi taldetan.

Haur txikiak bakarrik

Ekimena abian jarri aurreko ikasurte amaieran esperientzia pilotu bezala hasi zen EtorkiZUn eta or-

Hainbat jolas eta ekintza aktiboren bitartez euskara ikasten dute haur eta gazteek

Portugal, Ukraina, Bosnia, Bolivia edota Brasil herrialdeetako haurrak dira gehienak

duan, 12 eta 18 urte bitarteko gazteak ere kontuan hartu ziren. Taldeak, ordea, ez zuen aurrera irten eta gaur egun 12 urte bitartekoekin bakarrik egiten da.

«Astero ordu eta erdi egiten zuten Zapo Txoko gaztelekuan eta bertan, tailer desberdinez gozatzeko aukera izaten zuten, besteak beste, antzerkia eta sukaldaritza. Eskola orduetatik kanpo egiten zenez, ordea, orduetegi bat finkatzea zaila izan zen», agertu du egitasmoaren koordinatzailea den Iñaki Aizpuruk.

Adin tarte horretarako asmo fin-
korik ez dute oraingoz Euskara Pa-
tronatuan, baina arduradunek na-
barmendu dutenez, Zapo Txoko
gaztelekuan ekitaldiak antolatzen
dituzte gazteentzat orokorrean.
«Gainera, Ikasberriko taldea 12 eta
14 urte artekoa da eta Zapo Txoko-
ra eraman ditugu ikasleak bertako

Guztira, 92 haur etorkin ari dira parte hartzen; gaur egun, 12 taldetan banatuta daude

«Euskara menperatu arren, herrian integratzeko laguntza behar dute gazteek»

zerbitzuak eta eskaintzak ezagutu ditzaten. Euskara menperatu arren, herrian integratzeko laguntza behar izaten dutelako», adierazi du Aizpuruk.

Jolaserako gogoz

Rafa, Anais, Ana eta Leo portugaldarrak dira, Mohamed marokoa-rra, Yasmine Perukoa, Nicolas Ukrainatik iritsi zen, Bosniatik, berriz, Sonia etorri zen, Francesca Argentinatik, Anghy Boliviatik, Ferly brasildarra da, Francisco txiletarra, batzuei aurpegieratik bakarrik antzematen zaie kanpotik etorriak direla. Azpeitiar peto-peto hitz egiten dute denek.

Beraien artean duten harremana oso ona da eta etengabe hitz egiten dute, euskaraz noski. Gaztelaniako hitz batzuk egiten dituzte noizean behin, baina gelakideek berehala eskatzen dute «euskaraz hitz egiteko!». Hainbat jolas eta ekintza aktibotan bitartez euskara ikasten dute, ia konturatu ere egin gabe. «Gai desberdinak lantzen ditugu fitxa eta jolas desberdinekin. Horrela, benetan erabilgarri diren hitzak ikasten dituzte eta era berean, jolas bidez egiten dira, beraiek ondo pasatzeko», dio talde bateko irakasleak.

Gabonak iristeko gutxi falta denez, azken saioetan Olentzero eta Gabonekin lotutako marrazkiak egiten ari dira; «ni ez, ni autoak ari naiz margotzen, asko gustatzen zaizkit-eta», esaten du Leok. «Margotzeaz gain, jolasak ere egiten ditugu, kartekin adibidez», dio Rafak. Denek onartzen dute gus-tura ibiltzen direla klaseetan. «Bai, oso ondo pasatzen dugu eta asko ikasten ari gara», gaineratu du Nicolasek.

E **Elkarriketa****IÑAKI AIZPURI** » EtorkiZUn egitasmoaren koordinatzailea

KRISTINA FERNADEZ

«EtorkiZUn bezalako ekimenak gero eta beharrezkoagoak dira»

EtorkiZUn » Herrira iristen den etorkinen kopurua igotzen ari da, eta horrek ezinbestean bere eragina du EtorkiZun programan

Zeintzuk dira EtorkiZUn egitasmoan sartzeko eman behar diren pausoak?

Lehen pausoa ikastetxetik bertatik hasten da. Irakasleak ikusten badu haurren batek euskaraz hitz egiteko arazoak dituela, gurekin jartzen da harremanetan. Jarraian, gu joaten gara haurrarekin egon eta zer maila duen jakiteko. Horren arabera, ikastetxe barruan dagoen talde batean sartzeko aukerak aztertzen dira eta sartu egiten da. Behin sartutakoan, jarraipena egiten dugu.

Haur eta gazteekin izaten duzun dinamika zein da? Desberdintasunik egiten al da?

Programa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza zikloen artean zatituta dugu. Haur Hezkuntzan, 4. eta 5. mailetakoekin, jokoak, hiztegia eta abestiak lantzen ditugu, batik bat. Lehen Hezkuntzari dagokionez, 1. mailatik 6.era bitartean izaten da; HHkoen gai berak jorratzeaz gain, adin honi egokitutako beste gaiak ere lantzen ditugu. Gainera, txikienei baino parte-hartze handiagoa eskatzen zaie.

Noiz eta nola erabakitzen da haur batek ekimena uztea?

Klaseetan ikusten badugu haur bat ondo ari dela, hau da, jarioa duela hitz egiteko eta erritmoa jarraitzeko arazorik ez duela, hiru hilabetero egiten dugun balorazioaren ondoren erabakitzen da. Tutorearekin hitz egiten dugu eta hark asko hobetu dela esaten badigu eta egoiki ikusten bada, utzi egiten du.

Euskara batuari edo Azpeitiko hizkerari ematen diozue garrantzia?

Beraiekin hitz egiteko Azpeitiko hizkera erabiltzen dugu normalean, hitz egiterakoan askatzen hasten direnean azpeitiarrez egiten dutelako. Gero, ordea, testuren edo ipuinen bat irakurri behar badugu euskara batuan egiten dugu,

ikastetxean erabiltzen dituzten liburuak horrela baitaude. Hala ere, azpeitiarrez hitz egiten dutenek, euskara batua ere kontrolatzen edo ulertzen dute. Eta alderantziz, azpeitiarrez hitz egiten ez dutenek, oraindik euskararen oinarriak ez dutelako izaten da.

Gero eta etorkingehiago dago herrian. Honelako ekimenen garrantzia handitzen al doa?

Gero eta beharrezkoagoa dela ikusten da. Gurasoak, gainera, honelako zerbitzuak gero eta gehiago eskatzen dituzte, haurrek ikastetxean egiten dutenarekin bakarrik ez dela nahikoa konturatzen direlako. Izan ere, bizi diren inguruan edota lagunak euskaldunak ez badira, oso gutxi ikasten dute. Honek duen abantaila zera da, nahiz eta

ikastetxe barruko ekintza izan, gela desberdinetako pertsonak direla eta horrela, lagun gehiago egiten dituztela.

Orduan, gurasoen babesak izateak ba al du garrantzia? Hauen parte-hartzea bultzatzen al da EtorkiZUn ekimenaren baitan?

Bai, izaten dute garrantzia. Urte amaieran ebaluazio txostena pasatzen zaie, beraiek ere beren ebaluazioak egin ditzaten. Egia esan, iazko erantzun guztiak oso onak izan ziren, oso beharrezkotzat jo

«Etorkinen gurasoek zerbitzua eskatzen dute, eta iaz, adibidez, oso gustura gelditu ziren»

zuten zerbitzua eta hurrengo ikasturterako ere denek eman zuten izena beren seme-alabentzat. Partaidetzari dagokionez, aldiz, oraingoz ez da egiten, baina Udal Euskarategiarekin hitz egiten hasi gara urtean ekitaldiren bat edo beste elkarrekin egiteko. Izan ere, euskaltegian dabilzan etorkin asko EtorkiZUn programaren barruan sartuta dauden haurren gurasoak dira.

Zeintzuk dira haur etorkinei bideratutako egitasmoak dituen etorkizuneko erronka nagusiak?

Erronka nagusia herrian bizi diren haur etorkinak zerbitzu hau eman gabe herrian integratzea da. Ikastetxeetan egoten diren bitartean nahiz eta euskaraz egin, zer-bait falta zaie. Herriko haur etorkinei ematen zaien zerbitzua ona eta kalitatezkoa izatea beharrezkoa da. Ikusten den beste arazo txiki bat Hego Ameriketatik etorritako haurrekin izaten da, izan ere, hauek gaztelaniaz hitz egiten dute eta dena ulertzen zaien ez, ez dute euskara ikasteko behar handirik ikusten. Bestalde, gaztelania hitz egiten ez duten beste etorkinak motibatuago egoten dira euskara ikasteko orduan.

Etorkinen integrazioa errazteko hiztegi berria

Hiztegia » Azpeitian bizi diren etorkinen jatorria kontuan hartzen duen eskuko hiztegi berria argitaratu du Udalak

«Euskarak hiztunen premiagorria du. Gure hizkuntzak inor ez du kanpotar. Hemen denok gara etorkin: batzuk duela hamar mende ailegatu ginen, beste batzuk orain dela bi minutu. Eta beste asko, berriz, bidean gatoz. Ondo etorri denok!», mezua irakur daiteke Azpeitiko Udalak argitaratu berri duen hiztegiaren aurreneko orrialdeetan.

Testu edo mezu hau zazpi hiz-



Hiztegiak hainbat hizkuntzataraz itzultzen ditu euskarazko esamoldeak. K.F.

kuntza desberdinetan idatzi da; euskara (batua eta Azpeitiko hizkera), portugesa, arabiera, gaztelania, urdua (Pakistangoa), poloniera eta txinera, 2003tik 2007ra bi-

tartean Azpeitira etorritako atzerriar kopuruaren arabera.

Izan ere, datu hauek kontuan hartuta, herrira etorritako portugalarrak 150 izan dira, marokoa-

rrak 130, ekuadortarrak 83, argentinarrak 59, espainiarrak 54, pakistandarrak 38, txiletarrak 24, brasildarrak 23, boliviarrak 19, aljeriarrak 16, kubatarrak 14, 13 poloniar, 12 koloniar, 11 txinatar eta beste nazio batzuetakoak, berriz, 73. Guztira, beraz, 719.

Honela, berrogei orrialdeko hiztegiak eguneroko edo ohiko eginkizunetan erabiltzen diren hitz eta esamoldeak hizkuntza hauetan nola esaten diren jasotzen du, hizkuntza trabak arinduz eta herrira datozen etorkinei ezezaguna duten euskarara hurbiltzen lagunduz.

Hiztegia 14 esparru desberdinetan banatzen da, 201 hitz eta adierazpen ditu eta besteak beste, agu-

rrak, norabideak, garraioak, egunak, zenbakiak, lekuak, dirua eta sorlekuak jakiteko aukera dago.

Eregi euskara eta komunikazio enpresak egindako hiztegiaren 1.000 ale argitaratu ditu Udalak eta guztiz doan banatuko dira. Bat eskuratu nahi dutenek, udaletxeko harreraren edo Gizartekintzako bulegoan, Udal Liburutegian, Euskara Patronatuan edota herriko ikastetxeetan eska dezakete.

2004koa aldatuta

Hiztegi hau ez da Azpeitiko Udalak ateratzen duen lehena, aurretik, 2004an plazaratu baitzuen beste bat. Lehenbiziko lan hark, ordea, ez zuen herriko etorkinen jatorria kontuan hartzen.



Azpeitiko Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu eta urtez urte bizia eman diotenak bertan egunero ibili diren ikasle eta irakasleak izan dira. KRISTINA FERNANDEZ

Lehenbiziko mende laurdena

Udal Euskaltegia » Azpeitiko Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu aurten eta data bereziaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dute

1983ko uholdeek Azpeitiaren hondamena ekarri zuten, herriko azpiegitura, zerbitzu eta eraikin asko erabili ezinik gelditu ziren. Eraikuntza hauetako bat INEMek Harzubia hiribidean zuena izan zen. Udala euskara erakusteko gune bat sortzeko ideiarekin zebilen eta urte hartako uholdeek aukera paregabean eskaini zuten. Honela, INEM eta Udalaren arteko hitzarmenari esker, Azpeitiko Udal Euskaltegiak bere ateak zabaldu zituen lehenbizikoz 1984. urtean.

Harzubia hiribideko eraikina erabilgarri izateko lanak urtebetez luzatu ziren eta txukuntze lan guztiak Udal Euskaltegiko irakasleen esku gelditu ziren, lehenbiziko zuzendaria izan zen Pello Elorzak gogoratzen duen bezala: «Metro eta erdiko altuerara arte ura sartu zen uholdeekin, baina orduko lau irakasleok (Kontsuelo Gorostidi, Ane Amondarain, Patxi Saez eta Pello Elorza bera) garbiketa lan sakona egin genuen eta hantxe sartu ginen klaseak ematera».

Lehenbiziko urte haietan euskalduntzeko eta alfabetatzeko klaseak ematen zituzten eta oroitzapen onak gordetzen dituzte garai-ko arduradunek: «Oso giro ona izaten genuen, bai geure artean, baita ikasleekin ere, harremanak pertsonalagoak baitziren. Ilusioa ere lepo genuen, ia dena egiteko

baitzegoen; gainera, gazteak ere baginen eta...».

Garai eta egoitza aldaketak

Behin-behineko egoitza izan behar zuen Harzubiakoak, eta bertan eskura zuten materiala urria zela du gogoan Elorzak. «Ordenagailurik ere ez zen garai hartan eta eskuz egin behar izaten genituen lan guztiak. Udaletxera bueltaka ibiltzen ginen fotokopiak egiteko eta ikasle eta irakaslen fitxak betetzeko idazmakina erabiltzen genuen; irrati-kaset handi batzuk ere bagenituen».

Udalaren eta INEMen arteko hitzarmen baten ondorioz lortu zuten lehenbiziko eraikina

Horregatik, hasierako urteetako unerik gogoangarrienetakoa lehen ordenagailua iritsi zenekoa dute: «IBM bat zen, 40 megako diskogogorrasoilik zuen, baina ordurako sekulakoa zen. Azpeitiko udal erakundeetara iritsi zen lehengotakoa izan zen eta gu zorartzen geunden, zenbait lan egiteko sekulako aurrerapausoa ekarri zigulako», adierazi du Udal Euskaltegiko lehen zuzendariak.

Teknologiarekin batera, beharrek eta eskaintza ere aldatzen joan ziren. Hasieran, alfabetatzera



Euskaltegiaren lehen egoitza Hartzubian zegoen. UDAL EUSKALTEGIA



Gaur egungo euskaltegia Perdillegi kalean dago. KRISTINA FERNANDEZ

joaten ziren ikasleak nagusi baziren, tituluaren beharra zutelako joan zirenak indartu ziren gerora: «Hasiera hartan dena gaztelaniaz ikasitako ikasleak izaten ziren, alfabetatzera etortzen zirenak, eta beste behar batzuk zituztenak. Orain, lanerako edo tituluren bate-

rako ikasten dute gehienek, eta hasierako haien motibazioa falta dute», dio 1997tik 1999ra Udal Euskaltegiko zuzendaria izan zen Patxi Saezek.

Behar berriak kontuan hartuta, ikastaroen eskaintza aldatzen hasi ziren Saezen zuzendaritzapean.

Besteak beste, Iraleko irakasleei zuzendurikoak edota Euskaltzaindiaren arauetarako ikastaroak hasi ziren ematen. Zenbaitek arrakasta izan zuen eta bailara guztian eman zituzten, 200 ikasle baino gehiago izatera iritsiz.

Egoitzari dagokionez, berriz, Harzubiako bulegoetan hamabost urte igaro ondoren, Azpeitiko Udal Euskaltegia Institutura pasatu zen, handik Kontzeju Zaharre-

Azpeitiko Udal Euskaltegia 2004. urtean finkatu zen Perdillegin, gaur egun duten egoitzan

ra eta azkenik, 2004an lortu zuen gaur egungo egoitza finkoa, Perdillegiko eraikinean.

Ekitaldi bereziak

Azpeitiko Udal Euskaltegiak 30 ikastaro desberdin baino gehiago eskainiko ditu 25. uteurrenean, baina data berezia ospatzeko, ekitaldiz beteriko egitaraua osatu dute arduradunek.

Ekimenekin hasteko, Asisko Urmenetak hitzaldi irekia eskaini zuen urriaren 22an, baina bereziki euskara ikasten ari direnei edota euskaldunberriei zuzendutakoa izan zen. Komikilari nafarrak *Cómo aprender euskera en 40 años y un día, fácilmente* izeneko emanaldia aurkeztu zuen marrazkiekin lagunduta.

Bigarren saioa, berriz, azaroaren 13an izan zen Izarraitz pilotalekuan, Ez Dok Hiru Bikoteatroa taldeak *Euskarazetamol* antzezlanaren taularatu zuen Azpeitiko XXVII. Euskal Antzerki Topaketaren baitan. «Euskaltegiaren 25. urteurrena ospatzeko zein ekitaldi aukera genitzakeen pentsatzen hasi ginenean, emanaldietako bat antzerkia izan zitekeela pentsatu genuen eta hau begiz jo genuen, euskaltegiarekin zuzenean lotuta dagoelako. Antzerki Topaketetara etorri behar zuela konturatzean, ez zitzaigun iruditu egokia berriro ekartzea urte berean», azaldu

Ospakizunen amaieran, lehengo eta gaur egungo ikasle eta irakasleek bazkaria egingo dute

zuen gaur egun euskaltegiaren zuzendari Aintzane Agirrek antzezlanaren aurkezpenean.

Abenduari dagokionez, berriz, Joxe Mari Karrereren *Kontu kontari, hori bai bizitzea* izeneko ipuin kontaketa ikusteko eta entzuteko aukera izango da. Modu honetan, ikasturte guztian zehar hilabete bakoitzean emanaldi bat antolatzeke asmoa dute arduradunek. «25. urteurreneko ekitaldi hauei guztiei bazkari batekin emango diegu amaiera. Bazkari horretan garai bateko ikasle eta irakasleak eta gaur egungoak elkartzeko gara. Egun hori guzti-guztion eguna izango baita», gaineratu zuen Agirrek.

E Elkarriketa

AINTZANE AGIRRE › Udal Euskaltegiko zuzendaria

«Aurten, iazko talde kopurua lortu da eta hori ez da erraza»

Udal Euskaltegia › Azpeitiko euskaltegiak 25 urte bete ditu baina osasun oso onarekin jarraitzen duela adierazi du Agirre zuzendariak

Azpeitiko Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu. Zein izan da zure ustez euskaltegiak izan duen garapenik nabarmenena?

Lau alor nabarmenduko nituzke; Udal Euskaltegiaren ikastaro eskaintza zabaltzea da, ikasleek euskara titulu ofizialak eskuratzeko aukera handitu egin da, irakasleok titulu ofizialetako aztertzaile ere bagara eta klaseak emateko era, erabiltzen dugun materiala, materiala lortzeko iturburuak ... azken urteotan asko aldatu dira. Hauek kontuan hartuta, euskaltegiak hobera egin du.

Ikasleen profilak aldatzen joan dira. Zerk eragin du?

Helburuan edo motibazioan izan da aldaketa, gure ikasleek zertarako nahi duten euskara. Lehen bai euskaldun zaharrek eta bai euskaldun berriek euskara jakiteko gogo zuten. Gaur egun, ordea, ikasleek euskara ikasteko gogoia falta ez zaion arren, asko eta asko helburu zehatzago batekin datoz, gehiago dabilta beharbada tituluren baten bila. Lanerako tituluren bat behar dutelako edo euskara jakinda titulu bat eskuartean izanda lana errazago aurkituko duten ustea dutelako etortzen dira asko eta asko gaur egun euskaltegira.

Herriar asko euskaldundu duzue 25 urtetan, 3.800 lagun inguru. Zer sentitzen da?

Euskaraz moldatzen ez zen bati euskaraz hitz egiten entzuteak benetan bete egiten zaitu. Ikasleak euren ikas-prozesuan aurreratzen

ari direla ikusteak poz ikaragarria ematen digu irakasleoi. Era berean, ikasleren bat tituluren bat eskuratzen asko saiatu denean eta azkenean lortu duenean ere irakasleok izugarri pozten gara. Nola bait gure lana emaitzetan, tituluetan neurtzen da. Hori batzutan ona da, baina beste batzuetan ez.

Osasun ona al du Udal Euskaltegiak gaur egun? Zeintzuk dira aurtengo matriculazio datuak?

Bai. Aurtengo ikasturtean ere iazko talde kopuru bera izatea lortu dugu eta hori ez da lan erraza. Ez dugu ahaztu behar Azpeitia oso herri euskalduna dela. Honela, 2001eko erroldako datuen arabera, Azpeitiko hamar lagunetik ia bederatzi (%88,6) elebidunak dira, %4,3 elebidun hartzaileak (ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak) eta %7,1 dira bakarrik erdaldun elebakarrak, hau da, euskaraz batere ez ulertu eta hitz egiten ez dutenak. Datu

«Aurtengo ikasturtean ehun lagun inguruk azaldu dute euskara ikasteko nahia»

hauek ikusita pentsatu behar dugu euskara ikasteko beharra dutenen kopurua, hots, gure bezero potentziala oso txikia dela. Aurtengo ikasturtean, adibidez, ehun lagun inguruk azaldu dute euskara ikasteko nahia eta interesa. Gero, ehun hauetatik gaur egun 84 ikasle ari



KRISTINA FERNANDEZ

dira Azpeitiko Udal Euskaltegiko maila guztietako taldeetan euskara ikasten. Kopurua oso handia da. Gainera, azken urteotan gertatu den bezala, aurtengo udan EGA edo HABEren 3. maila atera nahi duten beste talde bat izatea ere aurreikusten dugu. Beraz oraindik ikasle kopurua handitu egingo da. **Etorkinak gero eta gehiago dira herrian. Islatzen al da hori Euskaltegian?**

Herrian etorkinak ditugu eta ondorioz, Udal Euskaltegia gizartearen isla den aldetik, hauen presentzia era nabaritzen da Euskaltegian. Hauek gure herrira etortzen direnean konturatzen dira Azpeitia oso herri euskalduna dela eta euskara beharrezkoa dela elkar ulertzeko. Etorkin hauek nahi dute euskara ikasi, baina zailtasun handia dute egunero Euskaltegira etortzeko orduan. Batzuek zailtasun handiak dituzte ordutegi jakin batera egokitzeko. Askok lana egi-

ten dute eta ezohiko ordutegian, gainera lanordu asko dituzte... Hala ere, baditugu egunero etortzen diren etorkinak eta ikasten ari direnak.

Zeintzuk dira euskaltegiaren etorkizuneko erronka nagusiak?

Esan beharra dago batetik, teknologia nagusi den aroan bizi garela eta horrek gure ikasleek irakasteko eran ere baduela zerikusi zuzena.

«Bai teknologi berriek eta bai denbora faltak eragina dute gure irakaste prozesuan»

Bestetik, berriz, egia da gero eta denbora gutxiago dugula bi orduz Euskaltegira joan eta bertan irakaslea aurrez aurre dugula gainontzeko ikaskideekin batera ikasteko. Beraz, bai teknologia berriek eta bai denbora faltak eragina dute gure ikaste-irakaste prozesuan.

Ondorioz, gero eta gehiago dira orain arte bezala aurrez aurre izan beharrean, *on-line* euskara ikastea eskatzen dutenak. Hori dela eta, argi dago irakasteko eta ikasteko modu berri honetara egokitu egin beharko dugula.

Azpeitia herri oso euskalduna izan arren, azpeitiar euskaldunen artean ikastaroak bultzatzeko asmoa agertu duzue. Zergatik?

Euskaltegiak ohiko euskalduntze eta alfabetatze taldeez gain, baditu beste 30 ikastarotik gora. Azpeitiarrak euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko gai garelako, uste dugu euskaraz badakigula. Baina askotan hori ez da nahikoa, alfabetatu beharra ere badago. Euskaraz idazteko eta irakurtzeko gaitasuna ere izan behar dugu. Gure kasuan askotan hori beharrezkoa izan arren, ez da nahikoa. Izan ere, euskarak esparru berriak irabazi behar ditu, eta lan mundurako hor dauzkagu 4. mailako ikastaroa ere.





Denda eta saltokiek herriko kaleetako paisaia hizkuntzarekin janzten dute, eta garrantzizkoa da euskarazko kartelak egotea bertan. HITZA

EROSI ERE, EUSKARAZ

Merkataritza » Euskaraz lan egiteko materiala biltzen duen katalogoa banatu du Udalak herriko saltoki eta establezimendu guztietan

Herriko saltoki eta establezimenduetan euskararen erabilerasustatzeko urratsak ematen jarraitzen du Azpeitiko Udalak eta helburu horrekin, zerbitzu katalogoa kaleratu du aurtun ere Euskara Patronatuak *Aukeran euskaraz* kanpainaren baitan. Egitasmoa ekainean aurkeztu zuten arduradunek eta herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu arloko saltoki guztietara zabaldu zuten, ia 500 establezimendutara, hain zuzen ere.

«Azpeitiarren %89ak euskaraz

egiten du ohiko bizimoduan eta kanpaina honekin mezu hauxe zabaldu nahi diegu merkatariei: aukeran, euskaraz lan egiteko. Izan ere, Azpeitian euskaraz lan egiteko badute aukera, Euskara Patronatuak badituelako baliabideak horretarako eta haien eskura daudelako», agertu zuen aurkezpenean Euskara Batzordeburu Ana Mendizabalek.

Honela, Patronatuak eskaintzen dituen baliabide guztiak katalogoan bildu dituzte eta aurtengo

berrikuntza aipagarriena, fruta eta barazki dendei zuzendutako materiala izan da. 50 fruta eta barazki identifikatzeko kartelak egin dituzte, eta horrekin, prezioak jartzeko txartel euskaratua eta pertsonalizatua eskaintzen zaie euskarri digitalean.

Herriko saltoki eta establezimenduen eskura jarri den materialari dagokionez, kartel mutuak, beharpenak, faktura orriak, agiriak, arloko hiztegiak, ostalaritzarako materiala eta aipatutako fruta eta barazki dendetako materiala dago aukeran. Merkatariei bideratutako eskaintza oparo hau, gainera, guztiz doan izaten da.

Zerbitzu eta laguntzen baitan, BDP softwarea, tresna informati-

koak erosteko laguntzak, itzulpen zerbitzua, aholkularitza eta ikastaroa aurkitzen dira.

Hizkuntza paisaia

Udalak eta Euskara Patronatuak merkataritza arloan abian jarri dituzten ekimenak fruituak ematen ari direla nabarmendu dute arduradunek: «Horren adibide dugu, besteak beste, hizkuntza paisaiaren azken urteotako eraldaketa. Orain dela zortzi urte Azpeitiko hizkuntza paisaiaren %85a gaztelania hutsezko kartelek osatzen zuten. Gaur egun, kontrakoa da, establezimenduetako hizkuntza paisaiaren %85 euskara hutsezkoa da», agertu zuen Patzi Saezek, Patronatuaren zuzendariak.

Iazko kanpainan izandako datuen arabera, 472 establezimendu

Euskara Patronatuak ia 500 saltoki bisitatu ditu aurtengo katalogoa aurkezteko

Saltokietako hizkuntza paisaiaren %85a euskara hutsezkoa da gaur egun

bisitatu zituzten eta guztira, 869 eskari jaso zituzten. Gehiena kartel mutuak eskatu zituzten (576), eta jarraian, euskarri eta agiriak, (270 eskari guztira).

» MERKATARITZAKO KATALOGOA

■ **Aukeran euskaraz.** Merkataritza euskalduntzeko helburuarekin Azpeitiko Euskara Patronatuak kaleratutako katalogoak hamabi orrialde ditu guztira. *Aukeran euskaraz* kanpainaren baitan saltoki guztiei eskaintzen zaizkien material eta zerbitzuez gain, bere baitan biltzen du UEMA eta Bai Euskarari Ziurtagiria ekimeneko informazioa ere.

Atalez-atal

■ **Sarrera.** Udalak Azpeitiko merkataritzan euskara txertatzeko egin duen eta egiten ari den ahaleginaren baitan kokatzen du Euskara Patronatuak katalogo hau. Bestalde, materiala edota zerbitzuak eskuratzeko establezimenduek Euskara Patronatuarekin harre-

manetan jartzeko bide ezberdinak agertzen dira katalogoan.

■ **UEMA.** Azpeitiko Udala Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu zen eta hartutako erronka nagusia, euskaldunak erosoago eta gusturago sentitzea dela nabarmentzen du katalogoak. Erronka horri eusteko, merkataritzarako eskaintzen duen materiala (hiztegiak, faktura takoak, oharrak idazteko txartelak, menuak...) www.uema.org webgunean aurki daitezkeela zehazten da. Horrez gain, euskaraz lan egiteko gaitasuna duten profesional eta enpresen datuak jasotzen dituen *Profesional euskaldunen gidan* sartzeko aukera ematen du.

■ **Euskara planak.** Patronatuak egiten duen diagnostiko eta hiz-

kuntza planifikaziorako metodologiaren urratsak xehetzen dira: hizkuntz-egoeraren azterketa egitea, saltokiaren kanpo irudia hobetzea, hizkuntza normalizaziorako urratsak finkatzea eta adostea, prozesua martxan jartzea, promozioa gizarteratzea eta urteroko ebaluazio eta jarraipen lanak egitea.

■ **Bai Euskarari Ziurtagiria.** Katalogoaren beste atal bat Bai Euskarari Ziurtagiriarena da. Dauden hiru mailak zehazten dira (Euskararen bidean, Zerbitzua euskaraz eta Zerbitzua eta lana euskaraz). Ekimenen sartzaren diren establezimenduei hizkuntza egoeraren azterketa egingo diete, ondoren helburuak proposatuko dituzte, eta hauek betetzeko baliagarri izan daitezkeen laguntzak saltokiaren

eskura jarriko dituzte: aholkularitza, diru laguntzak, gidak, inprimakiak eta dokumentuak, besteak beste.

■ **Kartel mutuak.** Saltokiek idatzi beharreko oharrentzat kartel mutuak egiten ditu Patronatuak. Establezimenduek tamaina eta kolore desberdinen artean aukeratu dezakete. Era berean, *lehen eta orain* txartelak ere eskaintzen ditu.

■ **Materiala.** Patronatuak eskaintzen duen doako materialaren artean honakoak daude: merkealdi eta eskaintza berezietarako kartelak, *erre daiteke / ezin da erre* eta *za-balik / itxita* kartelak, entrega-agiriak, fakturak, loteriako partaide-tzak, ordainagiriak, langileek euskara ikasteko materiala eta arloko hiztegiak.

■ **Berrikuntza.** Fruta eta barazkien kartelak eta euskarri digitalean 50 fruta eta barazki salduenentzat prezio txartelak osatzen dute aurtengo katalogoaren berrikuntza nabarmenena.

■ **Diru laguntzak.** Saltokien kudeaketarako prestatutako tresna informatikoa, BDP Softwarea, lortzeko aukera dago. Gainera, softwarearen erosketari finantzatzen du Euskara Patronatuak. Establezimendua zerbitzua euskaraz emateko gai bada eta aplikazio informatikoa euskaraz erabiliz gero, diruaren erdia itzultzen du Patronatuak. Euskara hutsezko errotu-lua jartzean dirulaguntza ere ematen du Patronatuak. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzuak eta ikastaroak ere antolatzen dituzte.

Elegune ekimenak enpresetako hizkuntza politika lantzen du

Elegune» Copreci Kooperatibaren kasua ezagutzeko aukera izan zuten Azpeitiko enpresa eta sindikatuek azaroaren 21ean Euskara Patronatuan egindako saioan

Azpeitiko lan mundua esparru euskalduna da. Herriko enpresetan lan egiten duten langileen % 95 euskaldunak dira eta euren arteko lan harremanak euskaraz izaten dituzte normalean. Hala ere, enpresen kudeaketa gazteleraz egiten da gehienetan eta arazo horri aurre egiteko asmoz, irtenbideak ematen ditu Elegunek, euskara ikastaroak, itzulpen lanak, arazo informatiko eta teknikoak, besteak beste.

Enpresen hizkuntza gestioa hobetzeko Elegune zentro teknikoak sortu zuen Azpeitiko Udalak, Euskara Patronatuaren bitartez, 2006. urtean. Elegune zentroak zerbitzu profesionala eta integrala eskaintzen du eta enpresetan euskarari dagokion tokia eta funtzionaltasuna aurkitzeko, laguntza eta baliabideak jartzea da eginkizunik nabarmenena.

Eusko Jaurlaritzak sortutako LanHitz programa garatzen laguntzeko hasi zen Elegune, programa hori praktikan jartzen zuen lehenbiziko herria izan zelarik Azpeitia, izan ere, gaur egun oraindik, Euskal Herri guztian zehar ez dago Elegune bezalako beste zentro teknikorik.

Zentro teknikoaherriko hamabi enpresa handienekin jarri zen abian, hizkuntza gestiorako planak diseinatu. Plan pilotu moduan hasi zen Elegune, baina bi urteko ibilbidearen ondoren, gaur egun 19 enpresa dira zentro teknikoaren zerbitzuak (planaren diseinua, ezarpena eta formazioa) jasotzen ari direnak.

Euskara planak abian dituzten enpresa hauek Abelur Kooperatiba, Antzibar, Azkune Frutak, Aluminios Azpeitia, Biele, Cristaleria Epi, Glual Hidraulica, Ibai-Ondo Fundiciones, Indauxman, Kimu Bat, Landeta Burdin Lanak, Gau Argi, Saiatu Etxegintza, Sein Batu, Arimar, Talleres Mecanicos Azpeitia, Iraurgi Lantzen, Asepeyo eta San Martin Egoitza dira.

Euskara Patronatuak emandako datuen arabera, herriko 19 enpresa hauetako langileak zenbatuz, Azpeitiko 705 enplegaturengana iristea lortzen du Elegunek.

Prozesuari dagokionez, berriz, Elegunek enpresan euskarak duen egoeraren inguruko diag-



Copreciko ordezkariak saio praktikoa egin zuten Talde Eragileko kideekin. EUSKARA PATRONATUA

nostikoa egiten du lehenbizi. Azterketaren ondoren, euskara hobeto txertatzeko proposamen zehatzak egiten dituzte. Azkenik, urtebeterako kudeaketa planak eratzen dituzte, baita behar bezala ezarri ere.

Enpresetako egitasmoa epe luzerako izaten da, eta urtebeteko

gestio plan horiek hiruzpalau urterako plan estrategikoen barruan sartzen dira.

Talde eragilea

Eleguneren zerbitzua jasotzen duten enpresek elkarlanerako gune bat izan zezaten, Talde Eragilea sortu zen 2007 urtean. Honela, gai

bat prestatzen da urtero eta gai hori sakondu egiten da hainbat saioen bitartez. Lehengaiak komunikazioa enpresa barruan nola landu izan zen eta Ederlan enpresako esperientzia ezagutu zuten.

Aurten, Euskara Patronatuak bi saio antolatu ditu Azpeitiko enpresek hizkuntza politikaren gaia

lantzeko helburuarekin. Ekitaldi teorikoa irailaren 30ean izan zen eta Eleguneko talde eragilearekin egin zen. Abelur Koop, Antzibar S.A., Azkune Fruta S.L., Iraurgi Lantzen S.A., Biele S.A., Landeta Burdin Lanak S.A.L., Kimu Bat S.L. eta Sein Batu S.L. enpresak dira Talde Eragilea osatzen duten partaideak.

Bertan agertu ziren gaiak honakoak izan ziren: hizkuntza politikaren definizioa, hizkuntza politika enpresan zehazteko arrazoiak eta nola landu. «Oinarrizko informazioa eman zen, gaia kokatu eta enpresetan Hizkuntza Politikaz ari garenean, zertaz ari garen argi izateko», azaldu du Eleguneko teknikari den Nerea Arexolaleibak.

Bigarren saioan enpresa baten kasu erreala ezagutzeko aukera izan zen. Horrela, Aretxabaletako Copreci Kooperatibako lehendakariak, Luis Mari Mendarozketak eta Euskara Planeko koordinatzaileak, Jaime Bengoak, enpresako euskara planaren ibilbidea agertu zuten.

Azaroaren 21ean egindako saio praktikorako gonbidapena Talde Eragileari ez ezik, Azpeitiko enpresei eta sindikatuari ere bidali zitzaizen eta guztira, hamar enpresak hartu zuten parte: Abelur, Antzibar, Azkune, Biele, Corrugados, Glual, Iraurgi Lantzen, Landeta, Sammic eta Seinek. «Saioak balorazio positiboa jaso zuen parte hartu zutenen aldetik. Datorren urtera begira, beste egitura eta ezaugarrietako enpresen esperientziak ezagutzeko nahia azaldu zuten, gainera».



Enpresen barruko kartelak euskaraz jartzea garrantzizkoa da. EUSKARA PATRONATUA

Aseguru-etxeak euskalduntzeko egitasmoa jarri dute martxan

Aseguru-etxeak » Ekimen honen arduradunek esan dutenez, «eskaera gutxirekin, presio handia egitea lortu» dute

Aseguru-etxeek eskaintzen duten zerbitzua bezeroek euskaraz ere jaso ahal izatea da *Euskaraz seguruago* kanpainaren helburu nagusia. Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak eta Ziurtagiriaren Elkartek antolatutako egitasmoa maiatzan iritsi zen Azpeitira eta ordudanik izandako ibilbidearen balorazio positiboa egin dute.

«Azpeitiko kasuan 37 eskari jaso ditugu eta 10 aseguru-etxe edota artekarari zuzendu zaizkie eskaerak. Teknikari bat ekimenerako hartu izana izan daiteke datu on horien arrazoia. Gainera, Udala-



Herriko hainbat aseguru-etxek hartu du parte *Euskaraz seguruago* programan. KRISTINA FERNANDEZ

ren, euskalgintzaren eta eragile desberdinen babesare jaso du herrian», azaldu du Kontseiluko kide den Juanlu Aranburuk.

Aseguru-etxe eta artekarari desberdinetara bideratutako eskariek espero baino presio eta eragin handiagoa sortu dute. «Egia esan, es-

kaera gutxirekin presio handia egitea lortu da. Konpainia nagusietara bidali ditugu eskariak, izan ere, polizak, kontratuak eta hone-lako agiri eta dokumentuak Madriletik bidaltzen dituzte. Beharra eta eskaria dagoela konturatu dira eta oso ondo erantzun dute. Hor

egin behar da indarra», adierazi du Aranburuk.

Gaur egun, *Euskaraz seguruago* kanpaina abiatu zuten eragileek Euskal Herriko aseguru-etxeekin bilerak egiten jarraitzen dute, kanpainaren berri eman eta arlo honetan euskararen normalizazioak di-

tuen erronkak eta beharrak haiekin aztertzeko asmoz. Eemaitzak eta ondorioak ere gizarteratuko dituzte. «Erakundeekin harremanetan jartzen ari gara elkarlanerako prest dauden jakiteko. Azken urratsean, datuak Interneten publikatuko ditugu, aseguru-etxe bakoitzak euskaraz eskaintzen dituen zerbitzuen berri emanaz. Honela, presio handiagoa egitea espero dugu», dio Aranburuk.

Oztopoak

Euskaraz seguruago kanpaina Bai Euskarari Ziurtagiriaren egitasmoan parte hartzen duten eragileek aurkitzen zituzten kanpoko arazoak ekiditeko jarri zuten abian. «Euskararen erabilera normalizatzeko konpromisoak hartzen zituzten eragileek oztopoak topatzen zituzten barne-mailako zenbait neurri garatzean, eta horien artean daude aseguruak. Horregatik, *Euskaraz seguruago* egitasmoa proposatu genuen, aseguru-etxeetan eragin eta herri mailako gizarte-eragileek eta norbanakoek hartzen zituzten konpromisoen ezarpena laguntzeko eta bultzatzeko», agertu du Kontseiluko kideak.

Bai Euskarari Ziurtagiria 37 eragilek berritu dute aurten

Bai Euskarari » Zerbitzua euskaraz eskaini eta lana ere hizkuntza honetan egiten duten saltoki eta enpresak 10 dira guztira

Bai Euskarari ziurtagiriaren bidez euskararekiko konpromisoa hartu duten 37 eragile daude aurten Azpeitian. Ekimenaren baitan ziurtagiria berritu nahi izan duten establezimendu eta eragileez gain, ordea, berriak lortzeko Siadeco enpresak azaroaren bigarren aste-

an hasi zuen kanpaina: «Ondorioz, ziurtagiridunen kopurua handitu egin daiteke. Gainera, ebaluazioak orain ari dira egiten eta gerta daiteke bajak egotea», azaldu dute Ziurtagiriaren Elkarteko kideak.

Bai Euskarari Ziurtagiriak hiru maila ditu. *Euskararen Bidean*, euskararen normalizaziorako neurriak hartzen eta garatzen ari diren enpresei, saltokiei eta era guztietako entitateei zuzenduta dago. Azpeitiko kasuan, sei eragile dira maila hau dutenak.

Zerbitzua Euskaraz, zerbitzua euskaraz eskaintzen duten era



laz ziurtagiria lortu zuten eragile batzuetako ordezkariak. KRISTINA FERNANDEZ

guztietako establezimendu eta entitateei bideratuta dago eta herrian, 21 saltoki daude guztira: Bai Euskarari Ziurtagiriak kanpainaren baitan sartuta dauden eragile gehienak daude multzo honetan.

Hirugarrena, aldiz, *Zerbitzua eta Lana Euskaraz* izeneko da eta zerbitzua euskaraz eskaini eta euskaraz lan hizkuntzatzat duten enpresei, saltokiei eta bestelako entitateei zuzenduta dago. Maila ho-

netako ziurtagiria duten Azpeitiko erakundeak 10 dira. Hiru mailatan banatutako 37 eragileek, beraz, euskararen normalizazio prozesuarekin bat egin eta arlo sozio ekonomikoa euskalduntzearen aldeko konpromisoa berritu dute.

Bereizgarria

Bai Euskarari Ziurtagiria 2000. urtean sortu zen Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluaren ekimenez eta 2007. urtetik Ziurtagiriaren Elkartek kudeatzen du. Ziurtagiria eskuratzeko, lehenik eta behin hizkuntza egoeraren azterketa egin beharra dago eta, hortik abiatuta, eragilearen jarduna euskalduntzeko planifikazioa zehazten da; helburuak, epeak, baliabideak eta arduradunak lantzen dira, besteak beste.

Urtea amaitutakoan, aurrez adostutako konpromisoak bete diren ebaluatzen da eta egindako ahalegina aitortu eta aldi berean konpromiso hori jende aurrean erakusteko bereizgarria ematen zaie ekitaldi batetan.





Azpeitiko Udalaren ordezkari Ana Mendizabal, Badihardugu elkarteko Asier Sarasua eta Aitziber Otegi ordezkariekin akordioa sinatzen. HITZA

Ahozko ondarea eta herri hizkera jasoko ditu Badihardugu elkarteak

Ahozko ondarea » Herriko 60 adinekori elkarrizketak egingo dizkiete euren garaiko informazioa lortu eta zabaltzeko asmoz

Galtzen hasita dagoen ahozko ondarea berreskuratu nahi du Azpeitiko Udalak eta horretarako lankidetza hitzarmena sinatu du Deba Ibarreko Badihardugu Euskara Elkartearekin.

Irailaren 9an sinatu zen akordioari esker, Azpeitiko XX. mendeko bizimodu tradizionalaren in-

guruko informazioa jaso eta gordetako duen datu-base digitala sortukoda. Gainera, herriko euskalkia aztertu eta bertako ahozko artxiboa antolatuta geratuko dela aurreratu zuten proiektuaren arduradunek. Ekimena garatzeko, adineko azpeitiarrak elkarrizketatuko dituzte.

«Ekimen interesgarria bezain garrantzitsua da, herriko kultura, historia, etnografia edota hizkuntzaren bilketa burutuko baita adineko 60 azpeitiarri egindako elkarrizketetan jasotako informazioarekin», agertu zuen Azpeitiko Udaleko Euskara zinegotzi Ana

Mendizabalek sinadura ekitaldian.

Azpeitiko Ahotsak izeneko proiektuaz arduratuko den teknikaria Aitziber Otegi izango da eta guztira hiru urte iraungo du, 2011. urtera arte, hain zuzen ere. Lehenbiziko urte honetan, Azpeitian dagoeneko eginda dauden grabazioak jaso eta katalogatzeaz gain, elkarrizketatuko diren 60 adineko herritarrak aukeratu eta elkarrizketa gehientsuenak egitea da asmoa.

Otegi teknikariak proiektuaren aurkezpenean adierazi zuenez, «uztail amaieran ekin zitzaion la-

nari, grabaketa guztiak aurtan osatzeko helburu nagusiarekin».

Auzo bakoitzetik lau lagun

Grabaketak egingo zaizkien pertsonen zerrenda Udalaren Euskara Patronatuak egin zuen eta herriko auzo bakoitzetik lau lagun aukeratu zituen, bi gizonezko eta beste bi emakumezko.

Honela, kaleko biztanleek, Izarratitz, Odria, Loiola, Lasao, Urrestilla, Oñatz, Elosiaga, Aratzerreka, Nuarbe eta Matxinbentako pertsonak hartuko dute parte proiektuan. Beizama eta Errezil herrietako biztanleak ere Azpeitiko hizke-

raren proiektuaren barnean kokatuko dira eta elkarrizketatu egingo dituztela esan zuten arduradunek.

Elkarrizketatutako pertsonak 70 urte baino gehiago dituzten pertsonak eta lanbide, harreman-sare eta gizarteko arlo ezberdinetakoak izango dira. Gaztelaniarekin ahalik eta harreman txikiena izandako hiztunak lehenetsi dituzte arduradunek, hau da, bizi-

Udalak eta Badihardugu irailan sinatu zuten proiektuak hiru urte iraungo ditu

Herritarrek egitasmo honen berri izango dute ahotsak.com/azpeitia webgunean

modua nagusiki euskaraz egin dutenak.

Era berean, euskara batuarekin eta jasoarekin hartu-eman handiegirik izan ez duten hiztunak, Azpeitian jaio eta bizimodua bertan egin dutenak eta guraso eta aitona-amonak ere Azpeitikoak dituztenak dira, gehien bat.

Informazioa eskura

Elkarrizketak bukatutakoan, grabaketen laburpena egingo dute, minutuz minutu eta gaika antolatuz. Informazio guztia batuko duen datu-basea eratu eta antolatuko du Badihardugu Euskara Elkartek eta, ondoren, informazio guztia herritarren eskura jarriko du Internet bidez.

Ekimena aurrera doan beste udalerrietan egin bezala, proiektuaren webgune den www.ahotsak.com/azpeitia helbidean lortu ahal izango dira datu guztiak, eta Udalak, berriz, www.azpeitia.net bere webgunean jarriko ditu lortuko diren emailtzak.

Badihardugu Euskara Elkartek eskarmentua du herri desberdinetako ahozko ondarea eta hizkera jasotzen, izan ere, *Azpeitiko Ahotsak* proiektua *Euskal Herriko Ahotsak* izeneko egitasmoaren baitan kokatzen da.

Euskal Herri guztiko ahozko ondarea eta herri hizkerak jaso eta hedatzeko xedea duen egitasmoak urrats asko eman du dagoeneko eta elkartearen webgunean informazio ugari jarri dute; adibide bezala, Euskal Herriko 90 udalerri desberdinetako 1.417 hizlariren 12.500 pasarte jasotzen dira 1.850 zintatan www.ahotsak.com webgunean.

Zenbait grabazioren transkripzioa ere sareratu dituzte dagoeneko eta 3.500 bideo eta audio fitxategi baino gehiago daude webgunean eskuragarri gaur egun. Hala ere, etengabeko lana denez ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzearena, arduradunek webgunea eguneratzen doaz lantzen duten informazioarekin eta 2012. urterako Euskal Herriko udalerri guztietako lekukotasunak jaso nahi dituzte.

Etorkizuneko bertsolarien harrobi txikia

Bertsolaritza » Iraurgi eta Ikasberri ikastetxeetako 100 ikasle inguru 'Ni ere bertsolari' egitasmoan parte hartzen ari dira

Bertsolaritza sustatzea da *Ni ere bertsolari* egitasmoaren helburu nagusia. Euskal Herriko Bertsozale Elkartek sortu zuen ekimena eta Bilbon jarri zuen martxan lehenbizikoz. Handik, Nafarroako udalerrietara igaro zen eta ondoren, Gipuzkoara iritsi zen.

Azpeitian badira zazpi urte kanpaina abian jarri zela eta Jokin Urangak gidatzen ditu etorkizuneko bertsolariak. «Azpeitiko ikastetxeek interesa agertu zuten egitasmoan parte hartzeko, Ikasberri eskaera ere egin zuen eta hasieran Ikasberri gain, Iraurgi eta Karmelo Etxegarai ikastetxeak



Ni ere bertsolari ekinenean haur ugari hartzen du parte. KRISTINA FERNANDEZ

ere ibili ziren. Gaur egun, ordea, Iraurgik eta Ikasberri jarraitzen dute eta aurtan, 100 ikasle baino gehiago dabilta», azaldu du Urangak.

Hamabostegunean behin elkartzen da irakaslea bere ikasleekin eta bertsoak egiten dituzte, gero

jendaurrean kantatzeko. Gainera, bestelako lanak ematen dizkie egiteko eta ondoren ikastetxe bakoitzeko gela bakoitzak bere tutorea rekin ere lantzen dituzte. «Modu honetan, bertsozaletasuna sustatzeaz gain, *Ni ere bertsolari* ekimenaren baitan ikasturtean finkatzen

diren beste helburuak betetzen ditugu, jendaurreko tasuna eta ahoz-kotasuna lantzea».

Urtean bi ekitaldi nagusi

Ikasturtean zehar landutako dinamikaz gain, *Ni ere bertsolari* egitasmoan parte hartzen duten ikasleek bi ekitaldi nagusi izaten dituzte. Batetik, liburu bat argitaratzen dute eta bestetik, zuzeneko emanaldi herrikoia eskaintzen dute.

Ekimenean sartuta dauden Gipuzkoako herrietako gela bakoitzaren argazkia eta lau bertso jasotzen dituen liburuxka kaleratzen dute maiatza aldean. Ikasturte amaieran, berriz, talde bakoitzak bere herrian egiten du jaialdia: «Oso ondo atera ohi da jaialdia, gai baten inguruan bertsoak egiten ditugu lehenago eta gero moztarokak pentsatzen ditugu. Ilusioa izaten dute eta gurasoak ere gustura joaten dira».

Eskubideak » Udalak, UEMAk eta Behatokiak abian jarritako ekimenaren baitan, herriko hainbat puntutan kokatu dituzte iradokizunak egiteko kutxak

Herritarrek eguneroko bizimodu euskaraz hitz egin edota bizi-
tzeko aurkitzen dituzten oztopoak
salatzeko aukera dute azpeitia-
rrek. Udalerrri Euskaldunen Man-
komunitateak (UEMA) eta Beha-
tokiak urte hasieran jarri zuten
martxan ekimena eta Azpeitira
azaroan iritsi zen, Udaleko Euska-
ra Mahaia irenbeskutik.

Modu honetan, herriko gune
desberdinetan kutxak jarri dituzte
herritarrek euskararen inguruan
dituzten galdera, kexa edota irado-
kizunak utzi ditzaten. Kutxa hauek
Udalak herritarrek gomendioak
jasotzeko dituzten buzoien ondo-
an jarri dituzte: udaletxean, libu-
rategian, kiroldegian, igerilekuan,
eta Euskara Patronatuan jarri di-
tuzte, esate baterako. Puntu haue-
tan eskuratu daitezkeen inprima-
kiak bete behar dira kexak aurkez-
teko, izen-abizenekin; dena den
egitasmoaren bultzatzaileek
«konfidentzialtasun osoz» jokatu-
ko dutela azaldu dute.

Bestalde, Internet bidez
www.behatokia.org helbidean eta
telefonoz, 902 194332 (Behatokia)



Euskararen Mahaia osatzen duten kideek aurkeztu zuten ekimena. MAILO OIARZABAL

Hizkuntza eskubideen urraketak salatzeko kanpaina jarri dute abian

eta 943816699 (UEMA) zenbakie-
tara deituz ere iradokizunak egin
ditzakete herritarrek.

Jasotako kexa, zalantza edo bes-
telako iradokizunak hilean behin
jasotzen dira eta UEMAk Behato-
kira eta Elebidera (Eusko Jaurleri-
tzaren zerbitzura) helarazten ditu.
Erantzuna daukatenean, berriz,

Behatokiak eta Elebidek idatziz
helaraziko diote salaketa edo go-
mendioa jartzen duenari; UEMAk
telefonoz egiten du. Jasotako kexa
eta iradokizun guztiak UEMAk
artxibatzen ditu eta kopiak Euska-
ra Patronatuari ematen dizkio.

Azpeitiarren iritzi eta salaketa
hauek bideratuko dituzte Behato-

kiko arduradunek eta ekimenaren
koordinatzaileek herritarren ja-
rrera aktiboa izatea espero dutela
azaldu zuten kanpainaren aurkez-
penean: «Herritarrek Azpeitian
edo kanpoan euskararekiko dituz-
ten oztopoen aurrean jarrera akti-
boa izatea da kanpaina honen hel-
buru nagusia, eta horretara anima-

tu nahi ditugu herritarrak. Udalak
erabateko adostasuna du ekime-
narekin eta azpeitiarrak euskararen
lagun izatera eta kanpainan
parte hartzera gonbidatzen ditu»,
esan zuen Arantxa Isartek, Udale-
ko zinegotzi eta Euskara Mahaiko
kideak.

Iradokizun buzoiez gain, mate-
rial osagarri moduan, herriko ikas-
tetxeekin harremanetan jarri dira
arduradunak, prestatuta dituzten
unitate didaktikoak ere zabal di-
tzaten. Material honekin, ikasleek
hizkuntza eskubideak ezagutuko
dituzte eta betetzen ikasiko dute.
«Azpeitiko ikastetxe batzuk zen-
bait lanketa egiteko asmoa agertu
dute dagoeneko», adierazi du UE-
MAko Miren Seguiolak.

Kanpainari jarraipena ematea
nahi dute bultzatzaileek eta hilean
behin, herritarrei hizkuntza esku-
bide baten inguruko informazioa
zuzenduko zaiela aurreratu dute.

Udalera begira

Hizkuntza eskubideen sentsibili-
zazioan eragiterako orduan, egi-
tasmoaren sustatzaileek herrita-
rrak mugitzeaz gain, Udaleko or-
dezkarri eta langileak ere
ekimenean parte hartzera bultza-
tu nahi ditu. Horregatik, Udaleko
funtzionamenduari gertatzen
diren hizkuntza eskubideen urra-
ketak salatzeko fitxa berezi batzuk
izango dituzte.

Bestalde, establezimendu edo
erakunderen batek herrian egoi-
tza berri bat zabaldu aurretik, hiz-
kuntza irizpideak kontuan har di-
tzen eskatzeko fitxak ere badau-
de.

«Tamalez, euskaldunak hizkuntza eskubiderik gabe ikusten du sarritan bere burua»

PAUL BILBAO » Behatokiaren zuzendaria

Sustatzailea » Herritarrek
hizkuntza eskubideekiko
duten informazioa eta
buzoien kanpainak izandako
harrera aztertu ditu

**Euskal Herriko hainbat udalerrri-
tan kutxak jarri dira salaketa eta
kexak jasotzeko, baina herrita-
rrek hizkuntza eskubideak eza-
gutzen al dituzte? Zer egiten da
eta zer egin daiteke hauek gehia-
go ezagutarazteko?**

Tamalez, askotan euskalduna ez
da bere eskubideen jabe. Batetik,
legeak berak eskubideak aitortzen
ez dizkiolako; bestetik, hizkuntza-
eskubideen urraketa sistematikoa
delako; euskaldunak eskubiderik
gabe ikusten du bere burua. Ho-
rretarako ezinbestekoa da lan ko-
munitate edo pedagogikoa egi-
tea, eta horrela, euskaldunak bere
egin behar ditu hizkuntza komu-
nitate bateko edozein kideri da-
gozkion eskubideak.



BEHATOKIA

**Non edo zein lekutan ematen dira
hizkuntza-eskubideen urraketa
handienak edo larrienak? Zer
egin daiteke horren aurrean?**

Urteroko diagnosian hiru beltzu-
ne agertu izan dira beti: osasungin-
tza, justizia eta herrizaingoa. Gai-
nera, kontuan izan behar dugu
eremu bakoitzak bere ezaugarri
bereizgarriak dituela. Esaterako,

medikuaren joan behar dugu-
nean ezinbestekoa da komunika-
zio egokia izatea osasun asisten-
tzia duina jasoko badugu; epaiketa
batean nahitaezkoa da epaileak
guk esaten duguna aditzea... Egoe-
ra horien aurrean eta eskubidea
urratzen zaigunean Behatokia jo
behar dugu, bidegabekeria horiek
guztiak bidera ditzan.

**Dagoeneko denbora pasatu da
kaxen egitasmoa abian jarri zela.
Zer-nolako erantzuna ari da iza-
ten?**

Pixkanaka-pixkanaka. UEMAren
postontzien dinamika abian ja-
rri genuenetik, Hego Euskal He-
rriaren berrogei postontzi inguru ja-
rri dugu. Ordutik hona ehun kexa
inguru bideratu dugu, baina jakin
badakigu UEMAren izango du-
gun hurrengo jarraipen-batzorde-
an kopuru hori biziki emendatuko
dela.

Zer balorazio egiten duzue?

Balorazioari dagokionez, pozik
gaude. Lehen esan bezala, zaila
egiten zaigu hizkuntza-eskubide-
en aurrean konpromisoa hartzea
eta kexak helaraztea. Halere, he-
rritarrek gure zerbitzua erabilita-
koan errepikatu egiten dute, ohar-
tzen direlako haien kexa norabait
helarazi zaiola, hau da, ez dela hu-
tsean geratu. Gainera biziki esti-
matzen dute konfidentzialtasun
osoz bideratzea, eta haien daturik
inora ez zabaltzea.

**Eragin zehatzik izan al dute egin-
dako salaketek?**

Behatokia ez da hizkuntza eskubi-
deak bermatzeko erakundea, izan
ere, ardura hori administrazioei
dagokie. Hartara, Behatokiak hiz-
kuntza eskubidearen urraketa
eragin duen erakundeari horren
berri ematen dio, eskubideen urra-
ketaz gain, lege-hausteak ere jaki-
narazten dizkio eta hori berriz ere
ez gertatzeko bideak jar ditzala
exijitzen dio. Ondorioz, adminis-
trazio publikoek maiz erantzuten
diote Behatokiari gertaeraren zerga-
tiak azaltzeko. Hortaz, Behato-
kiak akuilu lan handia egiten duela
ikusi ahal izan dugu 8.000 espe-
diente baino gehiago bideratu os-
tean.

**Kanpainaren jarraipena egiteko
asmoa agertu duzue hilean behi-
neko ekitaldi bat egiteko asmoa-
rekin. Zehaztu al duzue?**

Oraindik ez. Hala ere, azken bola-
dan hizkuntza eskubideen kon-
tzeptua gizarteratzeko tailerrak
egin izan ditugu hainbat herritan,
eta arrakasta izan dute. Horrekin
batera, zenbait ikastetxetan gazte-
txoeekin tailer berezituak egiteko
aukerak aztertzen ari gara. Izan
ere, orain dela urte batzuk Behato-
kiak unitate didaktiko berezitua
argitaratu zuen hizkuntza-eskubi-
deen kontzeptua gaztetxoei jo-
rratzeko.

Udaleko Euskara Plan berria urte amaierarako amaituta egongo da

Udal plana » Aurtengo maiatzetik aurrera egindako datu bilketaren emaitzen arabera, Udalaren kanpo harremanetako dokumentuen %98 euskaraz dago

Azpeitiko Udalak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko erabakia hartu zuen 2008. urtean. UEMA Euskal Herriko herri euskaldunak biltzen dituen mankomunitatea da, eta haren zeregin nagusienetako bat da Udalak hizkuntza normalkuntzan eredu izatera bideratzea.

Hori horrela izanik, Azpeitiko Udalak UEMAren bidez Udaleko euskararen erabileraren egungo errealitatea ezagutzeko datu bilketa egiteko erabakia hartu zuen 2008. urte amaieran; datu horiek aztertu eta Udala normaltasunez euskaraz funtzionatzera iristeko neurriberriak zehazteko helburua zuen erabaki hark.

Datu bilketa egiten aurtengo maiatz aldera hasi ziren. «Dagoneko Azpeitiko Udalaren argazki batbadugula esan genezake. Orain datu horietatik abiatuta, urte batzuetarako plana diseinatzea dagokigu, eta horixe egin nahi da urtea amaitzerako», adierazi dute arduradunek.

Oraindik egiteko

Maiatzaz geroztik egin duten datu bilketa horren emaitzak «oso onak dira orohar, eta argi ikusi da Azpeitiko Udalak euskararen normalkuntzan emandako urratsak eraginkorrak izan direla egin diren aurrerapausoetan. Dena dela, oraindik badago zer eginik euskara normalizatua dagoela esan ahal izateko», gaineratu dute ekimenaren arduradunek.

Udal langileen hizkuntza gaitasunari dagokionez, Azpeitiko Udaleko ia langile guztiak, «sal-



Udal langileak Patronatuan eskainitako ikastaro batetan. EUSKARA PATRONATUA

» AURREKO PLANA

Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei, eta horri jarraiki, Azpeitiko Udalak udal barneko euskararen erabilera plana tajutzeko erabakia hartu zuen 2000. urtean, eta horretarako bitartekoak jarri ere jarri zituen. Hiru aldi nagusi bereiztu ziren.

■ **Datu bilketa.** Datu bilketa egin, udal angileentzako normalizazio ekintzak proposatu eta hizkuntza irizpideak ezartzea. Datu bilketa egiteko, udal langile guztiak banakako bilerak egin ziren, eta bileretara horietan egiten dituzten lanen inguruko informazioa jaso zen, beste, idatzizko lanena, Azpeitiko Udalean ahozko erabilera bermatuta baitago. Datu horiek jaso eta gero, Plana garatzeko normalizazio ekintzak proposatu ziren, eta ahaleginik handiena banakako trebakuntzan jartzea erabaki zen.

■ **Garapena.** Datu bilketa amaitu-

ta, udal barneko erabilera planaren garapenari ekitea onartu zuen Azpeitiko Udalak 2003ko abenduaren 3ko udalbatzarrean, eta plan horri jarraipena egiteko batzordea ere osatu zen. Batzorde hori sei hilabetetik behin elkartu izan da sei hilabeteko horri dagokion ebaluazioa aztertu eta trebakuntzaldian izan daitezkeen gorabeherak jaso, aztertu eta sor daitezkeen arazoei konponbidea emateko.

2004ko urtarrilean udal langile guztiak komunikazio plana egin zen planaren nondik norakoekin berri emateko, hau da, trebakuntza non, zertarako eta nola egin azaltzeko, eta urtarrilean bertan eman zitzaion hasiera banakako trebakuntzari. Horretarako, langileen lan jardunen eta euskara mailaren arabera, proposamena egin zen, alegia, langile bakoitzak zenbat trebakuntza-ordu beharko zituen zehaztu zen. Proposamen hori arduradun politikoei aurkeztu eta hasiera eman zitzaion trebakuntzari.

Trebakuntza

Trebatze saioak langileak egin beharreko benetako dokumentu eta idatzietan daude oinarrituta, eta langile bakoitzaren ibilbidea bere lanpostuari dagokion lan guztiak euskaraz egiteko gauza denean amaitze nda. Kontua da amaieran trebagaik gauza izan beharko duela bere lanpostuari dagokion lan jardunak euskaraz egiteko. Azpeitiko Udalean guztira 46 udal langile trebatu dira euskaraz lan egin dezaten.

Formazioa

Erabilera Planaren barruan udal langileei trebakuntza eskaintzeaz gain, dagokien Hizkuntz Eskakizuna ez dutenei formazioa eskaini zaie. Saio horien helburua izan da beren lanpostuari dagokion HE lortzeko maila izan arteko formazioa ematea. Azpeitiko Udalean 68 langilek dute dagokien HE, eta 12 dira dagokien euskara maila oraindik lortu ez dutenak; baina 12 horietatik lau adinagatik salbuetsi-

buespenak salbuespen», gai dira beren lana euskaraz egiteko; hala adierazten du datu bilketak. Udalak hartuta dituen erabakien arabera, hemendik aurrera sartzen diren langileak ere gai izango dira Udalean euskaraz lan egiteko.

«Oro har, Azpeitiko Udala gai da herritarrei ohiko zerbitzuak euskaraz eskaintzeko, bai ahozko eta bai idatzizko harremanetan. Horren adibide da aztertu diren kanpo harremanetako dokumentuen %65 euskara hutsez egotea idatzita, %33 euskaraz eta gaztelaniaz, eta %2 baino ez, gaztelania hutsean», esan dute.

Udal barruko funtzionamenduari dagokionean ere, aztertutako dokumenturik gehienak euskaraz daude, nahiz eta administrazio atal batzuk oraindik zailtasunak izan euskaraz funtzionatzeko. Hirigintza eta Gizarte Ongizatea dira behar handiena erakutsi duten udal administrazio atalak.

Lan hizkuntzaren eremuan, berriaz, sortzen den dokumentazioaz gain, badira langileei euskaraz lan egitea eragotzen dieten beste hainbat faktore ere. Hala nola, aplikazio informatikoak, beste erakundeekin izandako harremanak, hornitzaileekiko eta zerbitzu enpresekiko harremanak, esaterako.

ta daude Hizkuntz Eskakizuna ateratzetik.

Hizkuntz irizpideak

Udal langileek kasu bakoitzean erabili beharreko hizkuntza zein den jakin dezaten, hizkuntzak erabiltzeko jarraibideak izan ditzaten, alegia, beren jardunari dagokien hizkuntza irizpideak zehaztu ziren 2005. urte amaiera aldera. Horretarako, langile bakoitzarentzat bere lanpostuari dagokion eskuliburu prestatu zen. Eskuliburu horretan hizkuntza irizpideon berri emateaz gain, beren lan eginkizun bakoitzari nola egokituko zaizkion ere zehaztuta dago.

Gainera, Udal barruan ez ezik, udalerrri mailan ere eragiteko, Udalak zuzenean ez bada, zeharka Azpeitiko herriari begira kudeatzen dituen jarduera esparru desberdinetarako ere, hizkuntza erabilera-ko ildo nagusiak eta irizpideak finkatu ziren. Hizkuntza irizpideok 2006ko irailaren 7ko udalbatzarrean aho batez onartu zituzten.



Euskarak osasun ona du Azpeitian eta horren adierazle dira bi adibideok. Batetik, Kontseiluaren hizkuntza politikaren neurketan maila hobetu du. Bestetik, Bikain ziurtagiria lortu du.

Goi mailako euskara

Azpeitia emaitza eta notak lortzen ari da euskara mailan. Alde batetik, Kontseiluak egindako udalerrien hizkuntza politikaren neurketan 2007ko datuak hobetzea lortu du. Bestetik, berriz, Eusko Jaur-laritzak sortu eta Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak kudeatzen duen Bikain ziurtagiria eskuratu du Udalak lehen aldiz.

Kontseilua

Kontseiluak egindako neurketan udalerrietako hizkuntza politika aztertu dute eta Azpeitiak 8,85

puntu lortu ditu guztira, azken neurketako emaitza bi puntutan hobetuz. Gainera, 10.000 biztanle baino gehiago dituzten herrien artean lehenbiziko postua ere bereganatu du.

Euskalit

Esparru sozio-ekonomikoko erakundeek garatutako hizkuntza-normalkuntzako prozesuek izan duten garapen maila egiaztatzea eta aitortzea da Bikain ziurtagirien helburu nagusia eta Azpeitikoa izan da lortu duen lehenbiziko Udala.



Azpeitiko Udala izan da Bikain ziurtagiria lortu duen lehenbiziko udala. KRISTINA FERNANDEZ

Hizkuntza politika egokiaren puntuazioa hobetzea lortu da

Neurketa » Azpeitia 12. postuan dago puntuazio altuena duten herrien artean, 8,85 punturekin. Aurreko neurketan, berriz, 6,82 puntu eskuratu zituen

Azpeitiak hasierako maila hobetu du Kontseiluak egindako udalerrien hizkuntza politikaren neurketan. Horrela agertu zuten Kontseiluko arduradunek azaroaren 14an egindako aurkezpenean. Azken ebaluazioaren emaitzek adierazten dutenez, zerotik hamarrarera, 8,85 puntu lortu ditu Azpeitiak, 12. postua lortuz puntuazio altuena dutenen udalerrien artean.

Kontseiluak 2007 urteko hasieran egin zuen lehenbizikoz udalerriaz udalerri hizkuntza politikaren azterketa eta orduan, 6,82 puntu lortu zituen Azpeitiak, emandako puntuaziorik altuena. Oraingo emaitzen ondorioz, Azpeitiak 12. postua eskuratu du nahiz eta bi puntu gehiago izan. Horren arrazoia, ordea, aurtengo ebaluazioaren baitan 10.000 biztanle baino gutxiago di-

tuzten herriak sartzea izan da. Hala ere, 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien artean lehengo postua bereganatzea lortu berriro Azpeitiak.

Sailkapenean atzera egin izana, hau da, 1etik 12rako atzerakada, «birtuala» besterik ez dela agertu zuten arduradunek. Gainera, Azpeitiak aurrera egin du gai honetan garrantzitsuena den kontuan: hizkuntza politika egokiaren puntuazioan. Bi puntu baino gehiago hobetu du maila Kontseiluak neurketa hauen emaitzak zehazteko erabiltzen duen 1etik 10erako eskalan.

Emaitzak arloka

Udalerrien hizkuntza politikaren neurketarako Kontseilua baliatzen dituen arloak-bederatzi dira guztira. Modu honetan, Azpeitiko datuei dagokionez, hauek izan dira: Erabaki orokorrean 0,91; hizkuntza paisaia 0,78; udal langileen arloan 3,60; Udalaren komunikazioan 0,70; beste zerbitzuen eta azpikontratazioen arloan 0,74; Udalaren kultur ekintzan 0,89; euskalgintzan 0,33; merkataritza eta lan munduan 0,46; eta azkenik, kirolean eta aisian, 0,46.

Bikain ziurtagiria eskuratzen duen lehen Udala da Azpeitikoa

Ziurtagiria » Euskararen inguruan Azpeitiko Udalak «oso urrats onak» eman dituela nabarmentzen du txostena egin duen talde ebaluatzaileak

Urrezko Bikain Ziurtagiria du Azpeitiko Udalak. Eusko Jaur-laritzak sortu eta Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioak kudeatzen duen ziurtagiri hau lortzen lehenbiziko udalerria izan da, gainera, Azpeitiko.

Ebaluazio txostena egin duen taldeak adierazi duenez, Azpeitiko Udalak «garapen altua» izan du eta hori «ardatz guztietan» nabari dela gaineratu du. Horrela, erakundearen irudia eta komunikazioa euskaraz hutsean edo elebitan egin dela ziurtatzen da, «elebitan daudenean, euskarari lehen-tasuna emanez».

Kanpo harremanetako garapena ere altua da, herritarrei emandako agiri, dokumentu eta bestelako zerbitzuak euskaraz baitira eta hornitzaile eta gainerako admi-

nistrazioekin ahozko harreman ere euskaraz izaten da. Barne harremanei dagokionez, hizkuntza-paisaia gehiena euskaraz hutsean izaten den arren, «langileen baliabide informatiko askoren interfazea gaztelaniaz» dagoela salatzen du txostena.

Azkenik, hizkuntzaren kudeaketan garapen maila altua du Azpeitiko Udalak, plan estrategikoak, aurrekontu handiak eta langile kopurua altua izanik. Aipatutako guztiagatik, honakoa esan du balorazioa egin duen txostena: «Gure ustez Azpeitiko Udalak oso urrats onak eman ditu eta bide horretan jarraitzea espero dugu. Gure aldetik bakarrik opa nahi diegu langile guztiei bide oparoa eta emankorra prozesu honetan, eta berriro ere azaldu nahi diegu gure eskerrik zintzoena laguntzagatik eta konfiantzagatik».

Puntuazio altua

Urrezko edo goi mailako Bikain Ziurtagiria lortzeko, erakunde batek 700 eta 1.000 puntu artean lortu behar izaten ditu eta talde ebaluatzaileak 800-849 puntu eman dizkio Azpeitiko Udalari.

